



Berrerabili-Utzi-Birziklatu-Aurreztu

Berria ez bada, BUBA

Saray Morales, Iker Paradelo, Aitor Pérez eta Harriet Uriarte

1- BALOREZKO PROPOSAMENA

NOR GARA?



Bigarren eskuko produktuak jasotzen ditugun denda gara. Produktu horiek jaso ondoren, hauek saltzeari ekiten diogu, prezio eskuragarrian, gizartearen ongizatea xedea izanik. Saltzera edo erostera ausartuko zinateke?

ZERK BEREIZTEN GAITU LEHIAKIDEENGANDIK?

KMO-ko produktuen erosketa sustatuko dugu, bigarren eskuko produktuak ekartzeagatik guk bonoak emango ditugulako bezeroei.

2-Bigarren eskuko produktuak direnez, prezioa baxuago izango da. Maila sozioekonomikoaren arabera, arazo ekonomikoak dituzten pertsonak produktuak eskuratzeko aukera izango dute.

3-Ekologiaren aldetik, birziklatzea eta berrerabiltzea sustatzen dugu.

4-Ez dugu merkatu-nitxo zehatzik. Gure enpresaren helburua gizartearen ongizatea denez, edonork eman diezaguke produktuak eta edonori eman diezaioguke produktuak.

NOLA FUNTZIONATZEN DUGU?

1-Guri ekarritako produktuengatik bono batzuk ematen ditugu (janaria, arropa...), dirua eman beharrean.

2-Bono horiek, Bilbon, KMOko produktuak erosteko izango dira, gu denda horiekin harremanetan gaudelako eta aliantza eta kolaborazioak ditugulako.

3-Jasotako produktuak, geroago, berritu ondoren behar izanez gero, salduko ditugu gure dendan, prezio baxuago batean, produktu originalarekin alderatuz gero.

